

NeuroWatch

Ayelén, Leyre, Aroa, Jone eta Nora gara, NeuroWatch proiektuaren sortzaileak. Proiektu hau oso garrantzitsua da guretzat, inguruan ditugun pertsona neurodibergenteei lagunduko dielako; izan ere, pertsona horiek egunerokoan zailtasun asko izaten dituzte, eta nahiz eta lagundu nahi izan, askotan oso zaila egiten zaigu. Nora duela bi urte dislexiarekin diagnostikatu zuten. Beti ikusi dugu gauza batzuk gehiago kostatzen zitzaizkiola, eta orain badakigu zergatik, baina ez dakigu nola lagundu. Horregatik erabaki dugu produktu hau sortzea. Lan, ahalegin eta batez ere denbora asko inbertitu dugu bertan: ikertzeko eta aholkatzeko, sortu dugun produktu hau behar duten pertsonei nola lagundu jakiteko, pertsona gisa hazi daitezen eta besteek duten erritmo berean bizi-kalitatea hobetzeko.